

«Donostia Hiria Literatur Sariak 1995»

n a b a r m e n

urtarrilaren 14ean emango dira ezagutza aurrengo «Donostia Hiria Literatur Sariak»ren irabazleen izenak Donostiako Udalarekin eguerdiko 13.00etan egingo den ekitaldian.

Kurtzak Donostiako Udalaren laguntzaz antolatutako lehiaketa honetara lan kopuru handia aurkeztu da: 1.236 gazte-lerazko ipuin, 84 euskarazko ipuin, 110 gaztele-

razko antzerki eta 5 euskarazko antzerki.

Sariak honako hauek izango dira: 500.000 pezeira lehen ipuin sarituentzat (euskarazkoarentzat eta gaztelaniazkoarentzat) eta 750.000 pezeira lehen antzerki sarituentzat bizkaitza bakoitzeari.

Era berean, lehen edizioak izan zuten arrakasta eta emaitza onak ikusirik, sortu berri den Udal Musi-

ka Eskolak eta Kuxa Fundazioak «Donostia Hiria» II. Piano lehiaketa-
ren bigarren edizioaren deialdia egin dute.

Izena emateko epea urtarrilaren 31ean bukatzen da eta informazio gehiago eduki nahi izanez gero, asteazken eta ostiralean 15.00etatik 16.00etara Gomez Beldarrain jaunarekin hitzegin dezakezue +66+88 telefono zenbakira deituta.

JUAN LUIS MURUA



3 spaldi honetan arraroa baina kristauntzat pozgarria den erabaki bat hartu du Juan Luisek.

Hogeita hamazazpi urteko Añorgatar hau apaiza da igandez geroztik. Bere auzoko Karmengo Amaren parrokiari egin zen apaiz. Seminariotik pasatu gabe, kristauen elkartean sartu ondoren etorri zitzaion apaiz sartzeko gogoak, honela kristau komunitateko jendeari eta baita gizarteari orokorrean hobeto laguntzeko modua izango duela lakoan.

Txotx!

Astigarragako sagardotegiek ireki dituzte jadanik ateak. Aste honetan Joxe Mari Bakero futbolariak eman dio ofizialki aurretengo sagardo denboraldiari hasera. Joan den urtean, Astigarragako sagardogileek San Sebastian egunaren aurreko ostirala erabaki zuten izango zela sagardo berriaren probaketa hasteko eguna, txotxean hasteko-alegia. Aurten beraz, urtarrilaren 13a. Hilabete pare batez, sagardoa, botiletan sartu baino lehen, kupeletik zuzenean dastatzeko aukera izango dugu.

Donostiako sagardotegiek ez dute egun bateraturik aukeratu txotxeko denboraldiarekin hasteko, Kalongek eta Barkaiztegik esaterako San Sebastian egunaren ondoren irekiko dute orain arteko ohiturarekin jarraituz, Garziategik eta Lizeagak aldiz, Astigarragakoekin batera irekiko dituzte ateak.



MOKO

